

## 4. Segurtasuna

### 4.2. Datu pertsonalen eta identitate digitalaren babesa:

#### **4.2.6. Herritarren eskubideak datuen erabilerari dagokionez**

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Segurtasuna.  
Datu pertsonalen eta  
identitate digitalaren  
babesa**

# **Herritarren eskubideak datu- erabilerari dagokionez**




**CRUE**

**REBIUN**

Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, honako alderdi hauek jakin behar zenituzke:



# AURKIBIDEA

- **Herritarren eskubideak**
  1. Sarbidea izatea
  2. Zuzentzea
  3. Aurka jotzea
  4. Ezabatzea edo baliogabetzea
  5. Ahaztea
  6. Erabilera mugatzea
  7. Eramangarritasuna
  8. Erabaki indibidual automatizatuen xede ez izatea
- **Legeria**
- **Gomendioak**
- **Gehiago jakiteko...**

# ESKUBIDEAK

## 1. SARBIDEA IZATEKO ESKUBIDEA

Eskubide honen bitartez, jakin dezakezu zer datu pertsonal erabiltzen dituen enpresa edo erakunde batek, zertarako erabiltzen dituen, zein den datuen jatorria eta ea hirugarrenen bati komunikatu dizkioten edo komunikatuko dizkioten.

Behin sarbidea eskatu ondoren, hilabeteko epearen buruan erantzun behar dizute, eta, erantzuna baiezkoa bada, hamar egun balioduneko epean gauzatuko da sarbidea.



## 2. ZUZENTZEKO ESKUBIDEA

Zure datuak zehatzak ez badira edo zerbait falta badute, eskubidea duzu datu horiek aldatzeko eskatzeko. Horretarako, zure eskaeran adierazi behar duzu zer datu zuzendu nahi dituzun, hori justifikatzeko dagokion dokumentazioa erantsita.

Adibidez, bizitokia aldatu eta enpresak edo erakundeak aurreko helbidea badauka, helbide berria jakinaraz dezakezu, aurreko datu pertsonalak zuzenduta.

Eskubide honen arabera, hamar egun baliouduneko epean erantzun behar dizute. Zure datuak hirugarrenen bati komunikatu badira, horren arduradunak datu zuzenduen berri eman beharko dio, hark ere zuzendu ditzan.



## 3. AURKA JOTZEKO ESKUBIDEA

Eskubide honen bitartez, zure datu pertsonalak egoera hauetakoren batean erabiltzearen aurka jo dezakezu:

- ★ Zure datuak erabiltzeko zure baimenik behar ez eta zure egoera pertsonal zehatzarekin loturik arrazoi legitimo eta funtsatu bat dagoenean. Adibidez, genero-indarkeria gertatzen den kasuetan.
- ★ Helburua publizitate eta prospekzio komertzialerako jarduerak egitea denean.
- ★ Helburua soilik zure datu pertsonalen erabilera automatizatuan oinarrituta zuri buruzko erabaki bat hartzea denean. Adibidez, kreditu bat ematea.

Eskubide honen arabera, zuzentzeko eskubidearekin gertatzen den bezala, hamar egun balioduneko epean jaso behar duzu erantzuna.



## 4. EZABATZEKO EDO BALIOGABETZEKO ESKUBIDEA

Eskubide honi esker, zuri buruzko datu pertsonal desegoki edo gehiegizkoak baliogabetu ditzakezu. Nolanahi ere, datuok blokeatuta geratuko dira, erabil ez daitezen, nahiz administrazio publikoen, epaileen eta epaitegien eskura egongo diren, preskripzio-epean erabileraren kontura sorturiko ardura posibleei erreparatzeko. Epe hori igarotakoan, datuak ezabatuko dira.

Zure datu pertsonalak ezabatzeko eskaera egitean, zer daturi buruz ari zaren zehaztu beharko duzu, eta zure asmoa justifikatzeko dokumentazioa gehitu.

Hamar egun baliouduneko epean jaso behar zenuke erantzuna. Zure datuak hirugarrenen bati jakinarazi bazaizkio, horren arduradunak datu ezabatuen berri eman beharko dio, hark ere ezaba ditzan.





## 5. «AHAZTEKO ESKUBIDEA»

Ezabatzeko eta aurka jotzeko eskubideak bilatzaileetan aplikatzean datza, informazio zaharkitua edo garrantzi eta interes gutxikoa zabaltzea saihesteko.

Zure helburuari jaramon eginez gero, ez da informaziorik agertuko bilaketen emaitzetan, baina jatorrizko iturrian argitaratuta egongo da.

Bilatzaileek zure helburuari ezezkoa emanaz gero, erreklamazio bat ipin dezakezu Espainiako Datuen Babeserako Agentzian.

Argitalpenaren jatorrizko iturrira jo gabe ere egin dezakezu, bilatzaileetan. Izan ere, bilatzaile nagusiek badituzte horretarako berariaz prestatutako inprimakiak.



## 6. ERABILERA MUGATZEKO ESKUBIDEA

Eskubide honi esker, datu pertsonalak aldatzea saihesteko neurriak aplikatzeko eska daiteke, edo, bestela, datuok ezabatzea edo deuseztatzea.

Datuen zehaztasuna erreklamatzuz gero, datuon erabilera mugatuta geratuko da epe batean, haien zehaztasuna egiaztatu arte.

Datuak erabiltzearen ardura duenak datuen babeserako araudia urratzen badu, datuak ez ezabatzeko edo ez deuseztatzeke eska dakioko, urratzearen froga gordeta gera dadin.

Datu pertsonalak behar izanez gero erreklamazioak egiteko, datuak erabiltzearen ardura duenak nahitaez gorde behar ditu datuok.



## 7. ERAMANGARRITASUNERAKO ESKUBIDEA

Eskubide honi esker, guk geuk erabaki dezakegu zer enpresarekin kontratatu nahi dugun zerbitzu bat, eta datuak entitate batetik beste batera igortzeak dakartzan arazoak saihestu.


Erabiltzaileek zerbitzu digitalen enpresa edo hornitzaile batek beste enpresa baten esku uzteko biltzen dituen datu pertsonalen kopia bat eskuratu dezakete. Adibidez, sare sozialetan edo *streaming* bidezko edukien plataformetan.



## 8. ERABAKI INDIBIDUAL AUTOMATIZATUEN XEDE EZ IZATEKO ESKUBIDEA

Eskubide honen helburua zera da: enpresek ahalik eta aukera txikiena izatea datu pertsonalak automatikoki bildu eta erabiltzaileen profilak egiteko eta hala pertsonen buruzko iragarpenak egiteko.

Adibidez, arlo askotan (banku-, finantza-, zerga- eta osasun-arloetan, adibidez), erabilera automatizatuz baliatzen dira gure baimenik gabe guri buruz eskuraturiko datu ekonomiko edo sanitarioetan oinarrituz kreditu bat ematea edo aseguru batean izena ematea ukatzeko.



# LEGERIA

## 1. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa

- ★ Legeak bi helburu ditu: batetik, Espainiako zuzenbidea Datuen Babeserako Araudian xedaturikoaren arabera egokitzea, eta, bestetik, herritarren eskubide digitalak bermatzea Konstituzioaren 18.4 artikuluan ezarritako aginduaren arabera.
- ★ Legeak datu pertsonalaren babesaren printzipioak ezartzen ditu: zehaztasuna, konfidentzialtasuna, baimena ematea eta izaera bereziko datuen erabilera.
- ★ Pertsonak beren datu pertsonalen erabileraz dituzten eskubideak zerrendatzen ditu: sarbidea ematea, zuzentzea, aurka jotzea, ezabatzea, mugatzea eta eramangarritasuna ziurtatzea.

## 2. Datuen Babeserako Araudi Orokorra



Pertsona fisikoaren datu pertsonalak eta datuok askatasunez zirkulatzea babesteari buruz sorturiko Europako araudia da.

Europar Batasunarena da araudia; hortaz, Batasuneko edozein enpresak zein Batasunean negozioak dituztenek eta orotariko informazioa erabiltzen dutenek bete behar dute.

# LEGERIA



3. 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazio-gizartearen zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzkoa

4. 9/2014 Legea, maiatzaren 9koa, Telekomunikazioei buruzkoa

Interneten eta orotariko komunikazioetan (posta bidezkoak, telefono bidezkoak, elektronikoak...) zein baliabide digital bidezko transakzioetan datuak babesteari buruzko gaiak arautzen dituzten legeak dira.

# GOMENDIOAK

Herritar gisa...



- Informatu zaitez zer datu pertsonal erabiltzen dituzten enpresek edo entitateek, zertarako, zein den datuon jatorria eta ea hirugarrenen bati komunikatu dizkioten edo komunikatuko dizkioten.
- Eskatu zehatzak ez diren edo zerbait falta zaien datuak aldatzeko.
- Iruditzen bazaizu zure datu pertsonalak erabiltzearen aurka jotzeko eskubidea duzula, egin aurrera.
- Eskatu desagokitzat edo gehiegizkotzat jotzen dituzun datu pertsonalak ezabatzeko.



# GOMENDIOAK

Herritar gisa...



- Zure informazio pertsonal zaharkitua edo garrantzi eta interes publikorik ez duena bilatzaileetan agertzea nahi ez baduzu, eskatu informazio hori ezabatzeko.
- Eskatu zerbitzu digitalen enpresa edo hornitzaileek dituzten datu pertsonalen kopia bat.

# GOMENDIOAK

Bezero, erabiltzaile  
edo langileen datuak  
erabiltzen dituen  
negozio edo  
entitateren baten  
arduraduna bazara...



- Izendatu datuen erabileraz arduratuko den pertsona bat, datuen erabileraren helburuak eta baliabideak finka ditzan, berak bakarrik edo beste norbaitekin.
- Identifikatu nor izango diren datuen erabileraren arduradunak.
- Egiaztatu informatzeko betebeharra betetzen dela, eta ziurtatu interesdunek badutela beren eskubideak erabiltzeko modua.
- Aplikatu datuen pribatutasunarekin loturiko arriskuak saihesteko segurtasun-neurriak.



# GEHIAGO JAKITEKO...

[Datuen babesa: herritarrarentzako gida](#)

[Infografia: zure datu pertsonalak babesteko eskubideak](#)

[Erabili zure eskubideak: Espainiako Datuen Babeserako Agentzia](#)



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center  
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101  
20009, Donostia, Gipuzkoa.  
T. 943574514  
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2  
20560, Oñati, Gipuzkoa.  
T. 943718009  
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Dorleta, z/g.  
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.  
T. 943714157  
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa  
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.  
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.  
T. 943794700  
biblioteca.mgep@mondragon.edu